

NOR ZEN AITA LIZARRALDE?

J. San Martín

Euskal kultura ere askok uste baino konplexoagoa da, eta ximplekerietan eroriaz eta gainera iraultzaren izenean, ez da harritzekoa errurik gabeen lepora zigorra joatea. Igaz horrelako zerbait gertatu zen Zaldibiako herrian, bere gogo guziarekin herriaren alde bizia eman zuen bat nabarmen agertzeko, lehendik zeudenen irudiak kendu. Han apenas egin zen ezertariko bereizkuntzarik, baina nere eritzi apalean era askotara ematen da herriaren alde bizia, eta uste horrekin borondaterik handienarekin ibili zen Fr. Jose Adriano Lizarralde zaldibiarrarena ere baztertu zen. Non mina, hara mihina. Eta benetan mingarria izan zen neretzat holako pertsonaia bat baztertzea. Herri bateko Udaletxea baino maila goragokoa merezi zuen gizona bere sorterrian baztertu zen.

Aita Lizarraldekin batean baziren beste batzuk ere, baina nik hura nuen gogokoen beragandik jaso nituen ikasbideegatik. Harrigarria badirudi ere, ondoko lerroen bidez emango dut nondikakoa nuen bere ezagutza eta maisutza.

* * *

Haurtzarotik nekarren naturaminak oso gazterik eraman ninduan mendizaletasunera eta kirol honen bidez Euskal He-

rria ezagutzera. Herriz-herri eta mendiz-mendi, igande eta bestelako jaietan, ahal nuen guzian, neretzat ez zegoen gauza ederragorik mendiak eta herriak ezagutzea baino. Hortarako bazen eibartarron artean lehenagotik zetorren zaletasunik eta adinekoengandik kontseiluak eta gidaritza ez ezik, maiz zahar eta gazte elkarrekin ibiltzen ginen. Horietako bat zen Indaleki Ojanguren fotografo ospetsua, zeinegandik ikasi nituen gure historiako pertsonaia askoren lehen berriak. Guda bukatzetik laster zen eta gure herri honen nortasunezkoak ziren gauzetaz zerbait jakiteko ez zegoen beste biderik.

Ojanguren, Marzelino Barrutia «Karo», Eleuterio Murua «Eulete» eta beste zenbaitekin iritsi nintzen lehen aldiz 1941ean Urbiako zelaira Aizkorrira igotzeko asmoz.

Donostia, Bilbo, Tolosa eta Eibar izango ziren urte haretan mendizale talde tipi batzuk baizik ez zituztenak. Geroago etorriko zen mendizaletasunaren hazkuntza, herriz herri ugartitu zena eta gehientsuek erromeria giroz hartu. Baina gure hastapenetan ez zen horrelakorik. Gu, bakartiar, isilik, inguruak begiz miakatuz, harriak zein landareak izenez eta izanez ezagutu guran..., bidez bide aurkitzen genituen iturrietan ur txarrak, onak eta hobeak bereizten ikasi eta mokaua jaten gelditzen ginen une berean inturrietako orbelak ken, garbituz eta txukunduz. Gaur egungo pista-biderik ez zen, eta herrietara autoz iristeko aukerarik ere ez. Bizpahiru lagun elkaturik, trenez eta lineako autobusez ahal genituen kominazioak eginaz heltzen ginen mendi barrenen inguruetara, oinez ikaragarritzko ibilaldiak egiteko. Urtean zehar, zenbait aldiz, hogeit edo hogetahamar laguneko taldeak autobusa edo kamioia (kamioiok hortarako bankoz hornitzen genituen) kontratuz antolatzen genuen urrutiko mendiren batera eskursioz joateko. Urrutitasun hori oso erlatiboa zen. Urruti bai ziren egun berean kominazio normalez iritsi ezinezko tokiak. Oñatin bertan Aloña, Butraitz eta Gaboño ziren Eibartik egun berean doi doi ostera egin ahalezkoak; ez ordea Aizkorri eta gutiago Aralar.

Elolako lepotik lehen aldiz Urbia ikusteaz zeharo txunditurik gelditu nintzen. Larradi zabal eta eder hura altura

hartan eta haitz zuri handiagoen babespean, haize garbiz eguzkitan ardi eta behor taldeak, isilaren barean zintzarrien zurrumurrua baizik ez. Leku zoragarria! Haitzen barrenean saroiak eta erdialdea zelai. Eta, han, zelaiaren erdian bertan mendizale eta artzaien ostatua. Handik hurbil, gaintxo batean, ermita.

Ermita horren sortze historiaz, Ojangurenen ahotik izan nuen Aita Lizarralderen lehen berria. Gure mendizale talde haiek, eibartar jatorrenetan ohi bezala, gehiengoak heterodoxoak hornitzen zuten eta heterodoxo artean bertan Heterogeneotasuna nabaritzen zen. Hala ere, han, holako ermitarekin aurkitzeak harridura pozgarria sortzen zigun. Inork esan gabe ere bagenekien gizonaren beharrak ogiz bakarrik ez zirela asetzen eta miretsiz ikusten genuen ermita hura, zeren paisajea ederra izanik ere Urbia basamortua bezala zen. Jabetzen ginen inguru haietako artzaiei zer nolako mesedea egin zioten ermita hura eraikitzea asmatu zutenek. Gogoarentzako babesa ez bait da guti paraje aparteko haietan. Horregatik heldu ginen Aita Lizarralde mirestera, batez ere Ojangurenek kontatzean asmo hutsetik laguntza eskean hasiz, ermita eraiki ez ezik, hura apaintzeko laguntzen artean hartu zuela gure herriko- seme genuen Zuloaga pintorearen lauki bat ere, Andra Mariaren erretratoa. Baina ekintzetarik bereziena, artzainak mendi goietan zeuden garaian igandero meza ematera joatea.

Ojangurenek asko tratatu zuen Aita Lizarralde, estimu handian zuen eta geroko egun batean berak ateratako argazki batean erakutsi zidan: betondo pentsakordun fraile buru-motza, okotz aski handi eda sudurra neurritz; itxuraz, gorputzez ez hain sendoa, aldiz bai gogoz.

Artzaiekin arduratzeaz gainera, horien bizitzazko berriak jasotzen ere lan ederrik egin zuen, *Anuario de Eusko-Folkóre*-ko lehen tomoetan ikus ditzagunez.

Gure artean, ez gure historiarik eta ez gure arterik erakusten ez zenean, gai horien azterketan aritu zen A. Lizarralde. Ni neu gai horietan sartu nintzenean, neuk bakarrik da-

kit bere iker lanak zenbat lagundu zidaten. *Andra Mari* deitu liburuen egilea bai zen Aita Lizarralde. Katalogatze iker-lanez Gipuzkoako tomoa egin zuen lehenik eta Bizkaikoa gero. Arabarekin jarraitzeko asmoa omen zuen, baina osasunak ez zion lagundu eta hura burutu baino lehen zendu zen. Katalogo horietan Erdi Aroaren azken parteko imajinak estiloz zehaztu zituen bere begi zoliak. Hitzaurreetan adierazten duenez, hortarako arauak finkatze iturrietarako non onarritzen zen erakutsiz. Eta, era berean, gure herritar artea imajinagintzan zer zen erakusten digu. Eta, hori, Lizarralderen lan bat baizik ez zen. Haren obra ezagutzeko, liburuez gainera aldizkari eta omenaldi liburuak jarraitu beharra dugu. Egin zuen guziak du bere garrantzia, ikerlaria halakoa zenez. Jakintzaz hornitua eta adimen zorrotzekoa. Artxiboak ondo miakatzen zituen eta frutu ederrik utzi ziguna.

Arestian adierazi dugunez, historia gaietan ere ez zen makala. Izan ere, Karmelo Etxegarairen hitzaurrez argitaratu zuen Azpeitiko Komentuari buruzko lan sakonak Academia de la Historia-ko kidea izateko atek ideki zizkion.

Euskarak ez zuen garai hartan oraingo osperik, baina *Aranzazu* aldizkariaren zuzendaria izan zenez, sorreratik bertatik elebidun egin zuen eta hala bultzatu nahiak eraman zuen berberak ere zenbait euskarazko artikulua idaztera. Artikuluak ez ezik, euskarazko ipui bat ere bai.

Arantzazuko historiaz gainera, Oñatiko Unibertsitate zaharrari buruz ezer badakigu ere berari esker da, zeren *Historia de la Universidad de Sancti Spiritus de Oñate* deritzan liburuaren egilea bait da. Tolosako Lopez-Mendizabalenean 1930ean argitaratua. Eta inork ezin uka beste lan askoren iturri izan ez denik. Azken urteotan, Luis S. Granjel eta J. L. Goti ederki baliatu dira Salamanca eta Euskal Herriko Unibertsitatean Medizinarekin Historia Sailean, zeren Lizarralderen obran azaltzen bai dira XVI. mendearen azkenaldera Oñatiko Medizina Fakultatean zer eta nortzuk irakasten zuten. Hara hor, Brocar-ek 1496an Iruñean argitaratu zuen inkunablearen ondotik Lizarralderen lanera jo beharra egun Euskal Herriko Unibertsitatean.

Benetan, pertsonaia interesantea zen Fr. Jose Adriano Lizarralde, 1884an Zaldibian jaioa. Bere sorterriko Udaletxean Honbrados Oñatibiak pintatutako erretratoa dute. A. Lizarralderen lanak ezaguturik, ohore murrizta iduritzen zitzaidan bere herrian holako lauki soil bat oroitzapenez. Historian, artean eta etnografian egin zituen iker lan bikain haien ordainez eta ondoko belaunaldiek eredutzat har zezaten, bere sorterrian monumentu bat eraiki eta Diputazio jauregian artista ospetsuren bati eraginiko laukia jarriko nizkion hori nere esku balego. Baina, hara hor, alderantzizko gertakaria, jaiotzaren mendeurrenean bere laukia kendu eta sotora baztertu. Hori izan da A. Lizarralderi eman zaion ordaina. Frailea omen zen. Batzuen ustezko libertatean, beraiek agindu behar dute besteak zer izan.

Hau da gure integrismoaren paradoja: komunista polakoak harro Koperniko-rekin, eta hemen, inkisizioaren aurka mintzatuz eta joera bera bultzatuz.

A. Lizarralde gizajoa 1935ean Bilbon hil zen, bere fedea-rekin eta naturalitate guziz. Nork daki biziaz iraun bazuen martiri gisan ez ote zen hilko, zeren martxa honetan gillotinaren aiztoa zorrozten ere hasiko zaizkigu.

Baina, gizona bere frutuetatik ezagutzen da, eta Aita Lizarralderenak hor daude guzian probetxurako, bereziki Euskal Herriaren kulturarako.

Herriगतik bizia ematea hainakoa ez ote herriarentzat bizitzea?